

## ABOKATU EUSKALDUNEN BATZORDEKO 2018.

### URTEKO TXOSTENA

Bilbon, 2019ko martxoak 4.

2018. urtean zehar, berarentzat hain gogorra izan den urte honetan, hauexek izan dira Abokatu Euskaldunen Batzordeak antolatu dituen eta euretan parte hartu duen ekimen azpimarragarrienak:

1) Urtarrilaren 16an, gure Batzordeak zuzenketa bateratua aurkeztu zien **Bizkaiko Abokatuzaren Elkargo Ohoretsuko Estatutu berriei**. Zuzenketa eztabaidatu eta bozkatu ostean, euskara Elkargoaren lan hizkuntza gisa aitortzea, eta, Ofiziozko Txandan zein Praktika Juridikorako Eskolan, ikasle eta kideek, euskaraz edota gaztelaniaz aritzeko eskubidearen bermea onartzea lortu genuen.

2) Apirilaren 26 eta 27an, **Bizkaiko Abokatuzaren II. Kongresuan**, euskarazko ponentzietako 4, Batzorde honen proposamen eta bitartekaritza bidez gauzatu ziren.

3) Azaroaren 16an, Bilboko Abando Hotelean ospaturiko **aurkezpen-gosarian**, Abokatu Euskaldunen Batzordeak parte hartu zuen **Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak** urtean zehar euskararen normalizazioaren inguruan izandako gertakari nagusiei buruz egindako aurkezpenean.

4) Azaroaren 30ean, gure Batzordeak **Abokatu Euskaldunen III. Eguna ospatu zuen**. *“Hizkuntza politiken inguruko erregulazio eta hausnarketak”* lemapean, euskara eta kataluniera bezalako hizkuntza koofizialak dauden lurraldeetan erakundeen aldetik jasotzen dituzten erregulazio eta babes maila desberdinak ezagutu genituen, eta, aldi berean, lankide kataluniarrek beraien egintza juridiko-administratiboetan katalunieraz jardutean aurkitzen dituzten arazoei buruzko

lekukotza zuzena genuen. Horretarako, Carles Mundó (abokatu eta Kataluniako *Generalitat*-eko Justizia kontseilari ohia), Jaume Vernet (Konstituzio Zuzenbideko katedraduna) eta Paul Bilbao (*Kontseilu*-ko idazkari Nagusia) gonbidatu genituen.

Ondoren, Kafe Antzokia-n bazkaria egin genuen Igor Elortza eta Aitor Bizkarra bertsolariekin.

5) Abenduaren 20an, Batzordeak, **Gobernu Batzordeak 2019. urterako aurkeztutako Bazkuneko aurrekontuen** gaineko eztabaida eta bozkaketan parte hartu zuen.

Abokatu Euskaldunen Batzordea